

**LEHENENGO  
HIZKUNTZA ESKAKIZUNA**

*IDATZIZKO AZTERKETA*

# ARGIBIDEAK

 **Hizkuntza eskakizun honen azterketak bi zati ditu:**

## Ahozko azterketa

- Ahozko azterketa, idatziaren ondoren egingo da. Non eta zer ordutan egin behar duzun, irteeran esango dizugu. Hizkuntza eskakizuna egiaztatu ahal izateko, ahozkoa eta idatzia, biak gainditu behar dituzu. Ez zaitez joan, beraz, ahozkoa egin baino lehen.
- Ahozko azterketan elkarriketa izango duzu aztertzaileekin. Egiten hasi baino lehen, haiek esango dizute zeri buruz hitz egin behar duzun. Jakina, zeure euskalkian hitz egin dezakezu eta euskara batuan ere bai.

## Idatzizko azterketa

- Idatzizko azterketak bi ariketa ditu: irakurmena eta idazmena. Bi ariketa hauek egiteko ordubete eta 15 minutu izango dituzu.
- Irakur itzazu ariketa bakoitzaren aurrean datozen argibideak, eta bertan jartzen duena egizu.
- Idatzizko azterketaren ariketak boligrafoz egin behar dira; saia zaitez letra txukuna egiten.

## 1. IRAKURMENA

- **Teknika:** Aukera anitzeko galderak
- **Ariketa:**
  - Ondoren testu bat daukazu eta jarraian testu horri buruzko galdera batzuk.
  - Galderei erantzuten hasi aurretik testua arretaz irakurtzea gomendatzen dizugu.
  - Galdera bakoitzarekin batera lau erantzun ematen zaizkizu: a), b), c) eta d). Egokiena aukeratu behar duzu.
  - Erantzuna aukeratzekoan, erantzun-orrian bertan markatu borobil batez a), b), c), edo d).

## BENETAKO DETEKTIBEAK

Detektibe hitza aipatzen dugunean, filmetan ikusten ditugun pertsonaiak etortzen zaizkigu burura, hau da, abentura arriskutsuak bizi dituzten detektibeak. Gainera, jende askok pentsatzen du detektibea gogorra, iluna eta polemikoa dela. Baina errealitatea ezberdina da: detektibeak pertsona arruntak dira, eta euren helburua lana ondo egitea da eta, batez ere, isilean eta inor konturatu gabe egitea.

Detektibe pribatua izateko hiru urteko ikasketak egin behar dira, Kriminologiako instituturen batean edo Hezkuntza Ministerioak homologatzen dituen beste zentro batzuetan. Horretaz gain, jakina, detektibe izan nahi duenak ezaugarri batzuk izan behar ditu, adibidez, ausarta izan behar du eta egoera zailetan zer egin jakin behar du.

Filmetan ikusten ohituta gaude detektibeak heriotzak, bahiketak eta antzeko tragedia gogorrak konpontzen. Errealitatean, ordea, euren zeregina guztiz desberdina da, detektibe pribatuen bezeroak normalean enpresak izaten baitira. Askotan enpresek langile batzuekin arazoak izaten dituzte, eta orduan detektibeen zerbitzuak kontratatzen dituzte. Beste batzuetan, familia barruko arazoetan ere hartzen dute parte, esate baterako senar-emazteen leialtasuna kontrolatzeko, bietako baten enkarguz.

Azken urteetan badago asko zabaldu den detektibe-lan bat: gazteen atzetik ibiltzea eta euren ohiturak ikertzea. Gaur egungo gazte askoren gurasoak arduratuta daude euren seme-alaben ohiturez, eta drogarekin zer-nolako harremana duten edota eskolara joaten diren ala ez jakin nahi dute. Gurasoek askotan ezin dute kontrol hori egin eta, beraz, detektibeen zerbitzuak kontratatzen dituzte. Detektibeentzat ez da erraza izaten gazte horien atzetik ibiltzea gazteak konturatu gabe. Izan ere, gazteengandik hurbil egon behar dute, baita gauez ere, lagunekin tabernetara joaten direnean. Hori dela eta, gauetan batez ere, kamuflatzeko hainbat trikimailu egin behar izaten dute, adibidez, mozorrotuta joatea edo bikotekidearekin joatea.

Kamuflatzeaz aparte, detektibe batek material berezia erabili behar du bere lana modu egokian betetzeko. Normalean, oinarritzko ekipamendua bideokamera, grabagailua eta mikrofonoa izaten da. Hortik aurrera, askoz material konplikatuagoa ere eraman dezakete.

EAE detektibe gutxi dago, behintzat beste lurralde batzuekin konparatuz gero. Bizkaiari 15 bat daude, Gipuzkoari 6 eta Arabari 3; hau da, guztira ez dira 25era iristen. Jendeak normalean kontrakoa pentsatzen bada ere, detektibe gehienak emakumezkoak dira, oso arrazoi argi batengatik: emakumeek konfiantza handiagoa sortzen dute, eta jende gutxi pentsatzen du emakume bat detektibe izan daitekeela.

Detektibe bat kontratatu nahi izanez gero, prezioa oso kontuan hartu behar da, nahiko garestia da eta. Gutxienez 180 euro ordaindu behar da zerbitzu labur baterako, baina era berean, 30.000 eurotik gora balio duten zerbitzuak ere badaude. Normalean, dena den, 500 eta 1.500 euro artean dago prezioa, kasua hiruzpalau egunetan konpontzen bada.

**IGOR URANGA**  
**ZABALIK, 2004ko martxoaren 5a**  
**EGOKITUA**

## 1.1. ERANTZUN-ORRIA

- **Irakurgai:** « BENETAKO DETEKTIBEAK »
- **Teknika:** Aukera anitzeko galderak.

### 1. ZEIN DA EGIA?

- a) Detektibeak normalean pertsona gogorak eta polemikoak dira.
- b) Benetako detektibeek zerikusi gutxi dute filmetan agertzen direnekin.
- c) Benetako detektibeek abentura arriskutsuak bizi dituzte etengabe.
- d) Detektibeek abentura arriskutsuak isilean bizi dituzte.

### 2. Detektibe pribatua izateko...

- a) hiru urtez ikasteaz gain, ezaugarri natural batzuk izan behar dira.
- b) hiru urtez ikasi behar da Kriminologiako institutu batean, eta beste hiru beste zentro batean.
- c) nahikoa da ezaugarri natural batzuk izatea, esate baterako ausarta izatea.
- d) nahikoa da Hezkuntza Ministerioari egoera zailtan zer egin behar den erakustea.

### 3. Zeintzuk dira detektibeek normalean egiten dituzten lanak?

- a) Enpresa barruko kontuak ikertzen dituzte langileen enkarguz, horiek enpresarekin arazoak izaten dituztenean.
- b) Filmetan bezala, heriotzak eta tragedia gogorak dira detektibeek gehien ikertzen dituzten kasuak.
- c) Batez ere familia barruko arazoak ikertzen dituzte, baina ohikoa da heriotzak eta antzeko tragediak ere ikertzea.
- d) Batez ere, enpresetako arazoak ikertzen dituzte, baina familia barruko kontuez ere arduratzen dira.

### 4. Gaur egungo gazte askoren gurasoek...

- a) detektibe pribatuak kontratatzen dituzte seme-alaben ohiturak ikertzeko.
- b) ez dute arazo askorik izaten seme-alaben ohiturak kontrolatzeko.
- c) ez dute jakin nahi euren seme-alabak eskolara joaten diren ala ez.

- d) drogarekin arazoak dituzte, eta detektibeei laguntza eskatzen diete.

## 5. ZEIN DA EGIA?

- a) Detektibeek gauzez egon behar dute gazteengandik hurbil, eta horrek lana errazten die.
- b) Ikertzen ari den gaztearen lagun egin behar da detektibea eta berarekin joaten da gauzez tabernetara.
- c) Detektibeak egunez besterik ez dira joaten ikertzen ari diren gazteen atzetik, gauzez zailegia delako.
- d) Detektibeek, gazteak gauzez tabernetan euren presentziaz ez konturatzeko, trikimailu asko erabiltzen dute.

## 6. Detektibe-lana modu egokian betetzeko...

- a) bideokamera eta grabagailua dira aparatuerik beharrezkoenak.
- b) oinarrizko aparatuez gain, material konplexuagoa erabil daiteke.
- c) nahikoa da kamuflaje berezia erabiltzea.
- d) material berezia erabiltzen da baina kamuflajerik ez.

## 7. Zer esaten zaigu EAEn dauden detektibeei buruz?

- a) Jendeak pentsatzen duela emakumezkoak detektibe hobeak direla eta gehienak emakumeak direla.
- b) Beste lurraldeetan bezala, detektibe gutxi dagoela, guztira 25era ez baitira iristen.
- c) Gehienak emakumeak direla, jendeak eurengan gizonezkoengan baino konfiantza handiagoa duelako.
- d) Nahiz eta jendeak pentsatu ez izan, beste lurralde askotan baino detektibe gehiago dagoela.

## 8. Detektibe bat kontratatzeko ...

- a) gehienez ere 1.500 euro ordaindu behar da.
- b) ez da komeni 180 euro baino gehiago ordaintzea.
- c) kontuan hartu behar da nahiko zerbitzu garestia dela.
- d) 30.000 euro ordaindu behar da, zerbitzu luzea bada.

## 1.2. ZUZENKETA-ORRIA

- **Irakurgaia:** « BENETAKO DETEKTIBEAK »
- **Teknika:** Aukera anitzeko galderak.
- **Baremazioa:** 5 erantzun zuzen edukitzea eskatzen da.

### ERANTZUN ZUZENAK

1.	B	5.	D
2.	A	6.	B
3.	D	7.	C
4.	A	8.	C

## 2. IDAZMENA

- **Teknika:** INPRIMAKIA
- **Oharrak:**
  - Hurrengo orrialdean agertzen den inprimakia bete behar duzu.
  - Letra garbia eta txukuna egiten saiatu.

**GAIA:** Gaur jatetxe batean bazkaldu duzu. Ez zara batere gustura geratu zerbitzarien arretarekin eta, gainera, handik ordubetera txarto sentitzen hasi zara, janariarengatik-edo.

Jatetxera joan zara erreklamazioa jartzera eta hurrengo orrian duzun inprimakia betetzeko esan dizute.

